



120. OSOKO BILKURAKO AKTA

Zumaia herrian, 2018ko maiatzaren 17an, arratsaldeko seietan, udaletxe honetako batzar aretoan Udalbatza eratu da ezohiko bilkura egiteko, aurrez zehaztutako eguneko aztergaien arabera. Garaiz eta zuzen deitu direlarik, Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

Lehendakaria:

Oier Korta Esnal jna.

Bertaratutako zinegotziak:

M. Cruz Alvarez Aparicio and.
Jon Joseba Iraola Rezola jna.
Gotzon Embil Unanue jna.
Cristina Vicente Iciar and.
Ane Arregi Urbieta, and.
Alex Oliden Antia jna.
Josu Arrieta Arriola jna.
Joseba Josu Azpiazu Azkarra jna.
Ione Muguerza Egaña jna.
Miren Pilare Galfarsoro Madariaga and.
Arritokieta Marañon Basarte and.

Ez bertaratutak

Arritokieta Iribar Egaña and.

Idazkaria:

Gorka Urgoiti Agirre



**1.- AURREKO BILERAKO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKO BADA:
(118. zbkia – 2018.03.15)**

118. zbkia duen akta onartutzat ematen da.

2.- OGASUNA.-

2.1.- IRIZPENAK.-

2.1.1.- 2018KO 4. KREDITU ALDAKETA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.-

“Kreditu gehigarrien bidezko kreditu aldaketaren 2018-KALD-000004-00 zenbakidun espedientea onartzeko proposamena”.

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, kreditu gehigarrien modalitatekoa.

Kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan ezarritakoarekin.

Gaia aztertu ondoren,

IRIZPENA

Lehenengoa.- 2018ko maiatzaren 10ean ospatzen den batzorde honek onartzen du Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu gehigarrien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

KREDITU GEHIGARRIAK

Kapitulua	Izena	Gehikuntzak
6	INBERTSIO ERREALAK	1.128.322,79
KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA		1.128.322,79

FINANTZAKETA

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
8 (SARRERAK)	ACTIVOS FINANCIEROS.	1.128.322,79



GUZTIRA	1.128.322,79
----------------	---------------------

Bigarrena.- Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

Aldeko botoak: 5 (2 EAJ-PNV, 2 EH BILDU eta 1 PSE-EE)

Aurkako botoak:

Abstentzioa:

Proposamen hau Osoko Bilkurara eramatea onartzen da.

Zumaian, 2018ko maiatzaren 11an
Kontu-hartzailea

KREDITU GEHIGARRIEN PROPOSAMENA

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0100.622.920.10.01 2018	UROLA ESTAZIO ZAHARRAREN EROSKETA	0,00	161.554,00	161.554,00
1 0100.600.134.00.01 2018	LUR-SAILAREN EROSKETA	0,00	35.000,00	35.000,00
1 0100.622.132.01.02 2018	FIELATOAN INBERTSIOAK	0,00	181.818,10	181.818,10
1 0100.622.337.21.02 2018	HOBETZE OBRAK LUDOTEKAN	0,00	20.000,00	20.000,00
1 0100.622.323.00.02 2018	HOBETZE OBRAK HEZKUNTZAN (ULO)	22.000,00	28.000,00	50.000,00
1 0100.601.134.00.01 2018	SAN JOSE IRISGARRITASUNA	462.192,00	101.400,89	563.592,89
1 0100.623.153.41.03 2018	FENDWICH, EKIPAMENDUA	0,00	6.900,00	6.900,00
1 0100.622.333.10.01 2018	ZINEKO ESTALPEA	0,00	11.000,00	11.000,00
1 0100.624.153.41.01 2018	BRIGADARAKO FURGONETA	0,00	37.000,00	23.000,00



1 0100.624.132.01.01 2018	UDALZAINGOARENTZAT IBILGAILUAK	0,00	34.000,00	48.000,00
1 0100.609.153.30.01 2018	SKATE PARK	0,00	130.000,00	130.000,00
1 0100.609.171.00.01 2018	MARIANTON PARKEA	0,00	105.649,80	105.649,80
1 0600.622.173.00.02 2018	INBERTSIOAK HONDARTZAKO INSTALAZIOETAN	21.500,00	48.000,00	69.500,00
1 0100.601.153.20.01 2018	HOBETZE OBRAK BIDE PUBLIKOETAN	90.000,00	180.000,00	270.000,00
1 0100.601.166.00.03 2018	Oikiako saneamendua	0,00	48.000,00	48.000,00
GUZTIRA		595.692,00	1.128.322,79	1.724.014,79

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0000.870.920.00.01 2018	DIRUZAINZAKO GERAKINA GASTU OROKORRETA	1.128.322,79
FINANTZAKETA GUZTIRA			1.128.322,79

KODEEN AZALPENA

- a) Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.
- b) Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintza gerakina
- c) Sarrera berri edo handiagoak.
- d) Kredituen baliogabetze baja.
- e) Kreditu eragiketak.

Zumaia, 2018ko maiatzaren 8an
ALKATEA

MARIKRUZ ALVAREZ (EAJ-PNV): 4. kreditu aldaketan proposatzen dena da 6. kapituluaren inbertsio erreala 1.128.322 €tako kreditu gehikuntza egitea, ondorengo xehetasunaren arabera,
Urola estazio zaharraren erosketa gehituko zen aldaketa izango zen kreditu gehikuntza 161.554 €tako.
Lur sailaren erosketa 35.000
Fielatoaren inbertsioak 181.818 €
Hobetze obrak ludotekan 20.000
Hobetze obrak hezkuntzan 28.000
San José irisgarritasuna 101.400



Zumaia Udala Fendwich, ekipamendua 6.900

Zineko estalpea 11.000

Brigadarako furgoneta 37.000

Udaltzaingoarentzat ibilgailuak, 34.000

Skate Park 130.000

Marianton parkea 105.650

Inbertsioak hondartzako instalazioetan 48.000

Hobetze obrak bide publikoetan 180.000 eta

Oikiako saneamendua, 48.000 eta esan bezala totalen da 1.128.323 €

Guztira finantzaketa egingo zen diru zaintza gerakinetik eta guztia 6. kapitulura joango zen eta hauxe da udalbatza honen onarpenean jartzen dugun kreditu aldaketa

2018IAKU0004-007-003

JOSU ARRIETA (EH BILDU): Guk batez ere bozketan azalpen txiki bat emateko proiektu honen inguruan informazioa eman zaigu eta proiektu batzuek ondo iruditu zaizkigu baina badaude beste batzuetan informazio nahiko ez daukagula edo erredakzioan parte ez dugula hartu eta orduan ba... abstenitu egingo gara

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 7 boto (6 EAJ-PNV, 1 ES-SV)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 6 boto (5 EH BILDU,)

ERABAKIA:. 2018KO 4. KREDITU ALDAKETA ONARTZEN DA.

2.1.2.- 2017. EKITALDIKO „SARE TEKNIKA, RED DE SERVICIOS DE ASISTENCIA TÉCNICA”RI DAGOKION FAKTURA; KREDITUAK EXTRAJUDIZIALKI ONARTZEA, BIDEZKO BADA.-

2018KO MAIATZAREN 10EKO OGASUNEKO BATZORDEAREN IRIZPENA, KREDITUAK EXTRAJUDIZIALKI ONARTZEARENA

AURREKARIAK



Zumaia Udala

2018IAKU0004-007-003

1.- 2017. urtean Sare Teknika enpresak lan batzuk egin omen zituen eta ez ziren ordaindu. 2018. urtean Udalari faktura erreklamatu zaio.

2.- Behin dagokion egiaztapena egin ondoren, ikusi da tarte labur baten buruan (egun bi) faktura bi ia berdinak heldu zirela. Udalak uste zuen fakturazioan arazo bat izan zela eta horregatik bat bakarrik onartu zuen. Egiaztatu da beste lan hori egin zela

Hornitzailea	Azalpena	Data	Kopurua
Sare Teknika	Revisión y análisis de combustión	2017/03/16	94 €
	GUZTIRA		94€

IRIZPENA

Ondorioz, 2018ko maiatzaren 10eko Ogasuneko Batzorde informatzaileak, ondorengo botoekin:

Alde: 5 (2 EAJ-PNV, 2 EH BILDU eta 1 PSE-EE)

Aurka:

Abstentzioa:

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 22.2 q). artikuluan, apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretuaren 23. artikuluan eta apirilaren 20ko 500/1990 Errege Dekretuaren 60. artikuluan ezarritakoaren arabera erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo soilak beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, ondorengo PROPOSAMENA egin da:

1.- 94 eurotako kredituak estrajudizialki onartzea.

MARIKRUZ ALVAREZ (EAJ-PNV): Hau batzordean ere aipatu genuen bezala, faktura 2017ko faktura bat hortxe airean geratu zen, egiaztatu da eta 2018an ordaindu ahal izateko udalbatza honen onarpenean jartzen dugu extrajudizialki onartzea kreditu gehigarri hori eta da 94 €koa.

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 11 boto (6 EAJ-PNV, 5 EH BILDU)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 1 boto (ES-SV)



ERABAKIA:. 94 EUROTAKO KREDITUA ESTRAJUDIZIALKI ONARTZEN DA .

2.2.- UDALAREN 2018KO 3. KREDITU ALDAKETEN KONTU EMATEA.

KREDITU GEHIGARRIEN PROPOSAMENA

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0100.601.153.20.02 2018	SABAIAN ERABILERA PUBLIKOA DUTEN GARAJEA	112.000,00	4.252,21	116.252,21
1 0100.601.165.00.02 2018	IDAE, ARGITERIAN INBERTSIOA	504.219,00	155.948,44	660.167,44
1 0100.601.153.20.01 2018	HOBETZE OBRAK BIDE PUBLIKOETAN	10.000,00	80.000,00	90.000,00
1 0100.624.134.00.01 2018	BIZIKLETA ELEKTRIKOA	0,00	3.018,90	3.018,90
1 0800.833.920.00.01 2018	PERTSONALENTZAKO AURRERAKINA	0,00	15.000,00	15.000,00
1 0100.622.164.00.02 2018	HOBETZE OBRAK HILERRIAN	0,00	1.400,00	1.400,00
1 0100.625.230.00.01 2018	HOBETZE OBRAK BRANKA	0,00	8.000,00	8.000,00
1 0300.481.326.00.01 2018	HEZKUNTZA DIRU-LAGUNTZAK	0,00	1.500,00	1.500,00
1 0600.227.441.20.99 2018	IBAIAN GARRAIO PLUBLIKOA	67.000,00	2.660,60	69.660,60
1 0600.600.171.00.01 2018	BARATZAK	17.000,00	7.247,45	24.247,45
1 1000.226.336.00.99 2018	BESTE HAINBAT GASTU . MEMORIA HISTORIKOA	1.000,00	29.528,84	30.528,84
GUZTIRA		711.219,00	308.556,44	1.019.775,44



Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
b	2 0000.870.920.00.02 2018	DIRUZAINZA GERAKINA, FINANTZAKETA LOTUA	11.499,66
a	2 0000.870.920.00.01 2018	DIRUZAINZAKO GERAKINA GASTU OROKORRETA	297.056,78
FINANTZAKETA GUZTIRA			308.556,44

KODEEN AZALPENA

- a) Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.
- b) Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintza gerakina
- c) Sarrera berri edo handiagoak.
- d) Kredituen baliogabetze baja.
- e) Kreditu eragiketak.

Zumaia, 2018ko martxoaren 8an
ALKATEA

MARIKRUZ ALVAREZ (EAJ-PNV): 3. kreditu aldaketa, kreditu gehikuntza bat da baita ere eta ondorengo xehetasunaren arabera egiten da.
Kreditu aldaketa gehikuntzak izango dira ondorengo partidetan,
Sabaian erabilera publikoa duten garajea 4.252 €
Idea, argiterian inbertsioa 155.948 €
Hobetze obrak bide publikeotan, 80.000 €
Bizikleta elektrikoa 3.018 €
Pertsonalentzako aurrerakina 15.000 €
Hobetze obrak hilerrian 1.400 €
Hobetze obrak branka 8.000€
Hezkuntza diru laguntzak 1.500 €
Ibaian garraio publikoa 2.660 €
Baratzak 7.247 €
Beste hainbat gastu memoria historikoa, 29.529 € eta finantzaketa egingo da guztia diruzaintza gerakinetik 308.556€

2.3.- KREDITU ALDAKETAK ETA GERO AURREKONTU EGONKORTASUNA ETA GASTU ARUA EZ BETETZEAREN KONTU EMATEA.

TXOSTENA

AURREKONTU EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN



HELBURUAK ETA GASTU ARAUA BETETZEARI BURUZKOA

2018. URTEKO AURREKONTUA (4. Kreditu aldaketa egin ondoren, kreditu gehigarriak)

ARAUDI APLIKAGARRIA

- * 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- * 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena.
- * Diputatuen Kontseiluaren Akordioa, 2017(e)ko azaroaren 7(e)an, Jarraibidea onartzen duena finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan.

FORU ARAUAREN 1.2.a) ARTIKULUKO ENTITATEAK (administrazio izaera dutenak)

1. **ENTITATE ZERRENDA:**
 1. ZUMAIA
 2. ZUMAIKO KIROL PATRONATUA
2. **HELBURUAK BETETZEARI BURUZKO EGIAZTAPENA**

Aurrekontuen egonkortasuna

Entitate honen finantzaketa ahalmena/premia, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera, honako hau izatea espero da 2018. urtean:

Defizita: 3.133.697,26

Ondorio horretarako, ez denez aurreikusten ondorengo doikuntzarik beharko duen eragiketa adierazgarriak, kalkulu hori 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoko sarreren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoko gastuen arteko diferentziaren bitartez egin da, goian zerrendatutako entitateen kontuak bateratuta.

2018. urterako ezarritako helburua defizita zero izatea da.

Hori dela eta, toki entitate honek ez du betetzen aurrekontu egonkortasunaren 2018. urterako helburua.

Finantzen iraunkortasuna

2018-12-31n, goian zerrendatutako entitateen zor bizia, guztira, honako hau izatea espero da, 2017. urteko sarrera arrunten aldean:

Zor bizia: %20

Sarrera arruntak: 13.451.281,50. Aurreko txostenetan udalaren sarrera arruntak bakarrik hartu ziren kontutan baina bateratua hartzea errealagoa da.

Zorra: Bankuekin maileguak: 1.799.192,54 – 139.241,05 – 219.950,5 (urtarrilean amortizatu zena, etxe salmentarengatik): 1.440.000,99



Mankomunitatearekin zorra, Urteta zabortegiaren kudeaketa: 727.334,14 (27.974,39*26)
IDAEko mailegua: 504.219

Aurreikusitako zorra, 2018/31/12an: 2.671.554,13

Kalkulua egiteko, 2017-12-31ko zor biziaren zenbatekotik abiatu gara, indarrean ziren eragiketa guztiak kontuan hartuta, bai epe luzekoak, bai epe laburrekoak, abaletatik eratorritako arriskua barne.

Emaitzari gehitu zaizkio hitzartu diren eta erabili gabe dauden eragiketak eta 2018. urtean aurreikusitakoak, eta kendu zaizkio 2018. urterako aurreikusitako amortizazioak.

2018. urterako ezarritako helburua zor bizia %75 baino handiagoa ez izatea da.

Hori dela eta, toki entitate honek betetzen du finantza iraunkortasunaren 2018. urterako helburua.

Gastuaren araua

2018. urtean gastu konputagarria eta gastuaren muga honako hauek izan dira:

Gastu	
konputagarria:	16.144.534,26
Gastuaren muga:	11.780.405,93
Diferentzia:	4.364.128,33
DGrekin finantzatutako obligazioak:	2.968.675,26

Aurreko kalkulua egiteko, goian zerrendatutako entitateen datu bateratuak erabili dira, ondoko taulan xehatzen den moduan:

	2018	2017
Gastu ez finantzarioak (1-7 kapituluak)	17.215.032,26	12.215.524,38
Zorraren interesak	16.423,00	19.214,76
SEC doikuntzak	0,00	0,00
Admin.publikoen ekarpen finalistekin finantzatutako gastua	1.054.075,00	692.006,95
Gastu konputagarria	16.144.534,26	11.504.302,67
Gastuaren hazkundearen muga:	%2,40	
Araudiaren aldaketen eragina:	0,00	
Gastuaren muga	11.780.405,93	

Hori dela eta, toki entitate honek ez du betetzen 2018. urterako gastuaren araua.

3. ONDORIOAK

Toki entitate honek ez ditu betetzen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren arloetan 2018. urterako ezarritako helburuak edota gastu araua. Likidazioan egoera hori berretsiko balitz, toki entitate hau behartuta legoke plan ekonomiko finantzarioa onartzera. Aipatutako planak ahalbideratu behar du urteko ekitaldian eta hurrengoan defizitaren helburua eta gastu araua betetzea, eta 2020an zor bizia sarrera arruntan %70 edo txikiagoa izatea. Plan hori Udaltzari aurkeztu beharko zaio hilabeteko epean, gehiena jota, likidazioaren espedientea onartzen denetik kontaktzen hasita; bi hilabeteko epean onartu beharko da, gehiena jota, aurkezten denetik kontaktzen hasita; eta martxan jarri beharko da hiru hilabeteko epean, gehiena jota, likidazioaren espedientea onartzen denetik kontaktzen hasita.



MARIKRUZ ALVAREZ (EAJ-PNV): Kontuhartzaileak, batzordean azaldu zuen bezala kreditu aldaketa hauen ondorioz, momentu honetan aurrekontuak ez du betetzen egonkortasunaren eta gastu arauaren helburua, bai ordea finantza iraunkortasunaren helburua, hala ere, likidazioaren zain egon beharko da eta emaitzak ikusita, ikusiko da egin beharko den plan ekonomiko finantzieroa bai ala ez.

3.- HIRIGINTZA.-

3.1.- IRIZPENAK:

3.1.1.- HONDARTZETAKO ERABILPENA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZARI HASIERAKO ONARPENA EMATEA, BIDEZKO BADA.

AURREKARIAK

1.- Araudi honen xedea da Zumaia udalerriko kostaldeko hondartzetako erabilera egokia arautzea, herritar guztiok hondartzaz libre eta publikoki gozatzeko daukagun eskubidea kontuan izanda, Udalak bere ahalmenen esparruan, erabilera arrazionala eta iraunkorra bermatzeko, osasun publikoa babesteko eta ingurune egokia mantentzeko, uztailaren 28ko 22/1988 legea, kostaldee buruzkoaren 115.artikuluaren xedatutakoaren arabera 21.1.a) eta f), 22.2.d) artikuluen eta 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen 139. Artikuluaren arabera.

2.- Ikusirik 2018ko apirilaren 16ko Hirigintza, Obra, Zerbitzuak, Ingurumena eta Udaltzaingoen Batzordeetan HONDARTZETAKO ERABILPENA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZARI buruz informatu zela.

IRIZPENA

Ondorioz, 2018ko maiatzaren 7ko Hirigintza, Obra, Zerbitzuak, Ingurumena eta Udaltzaingoen Batzordean, ondorengo botoekin:

Alde: Oier Korta Esnal (EAJ)
Arritxu Marañon Basarte (PSE)
Alex Oliden Antia (Bildu)
Josu Arrieta Arriola (Bildu)

Kontra:
Abstentzioa:

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako



Zumaia Udala

2018IAKU0004-007-003

bertan daudenen gehiengo sinplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 22.2.d) eta 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, ondorengo **PROPOSAMENA** egin da:

1.- HONDARTZETAKO ERABILPENA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZARI hasierako onarpena ematea.

2.-Jendaurrean erakutsiko da 30 lanegunez espedientea, iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den biharamunetik hasita, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko.

Aipatutako apean erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin behineko akordia behin betikotzat hartua izango da, 7/1985 Legeko 49 artikuluaaren arabera.

Zumaian, 2018ko maiatzaren 7an
Oier korta Esnal
Alkatea

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 12 boto (6 EAJ-PNV, 5 EH BILDU, 1 ES-SV)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA: 1.- Hasierako onarpena ematea, Hondartzetako Erabilpena arautzen duen ordenantzari; jendaurreko agerraldian ezarriko da 30 lanegunez espedientea, iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den biharamunetik hasita, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko.

2.- Jendaurreko erakusketako epealdia amaitu ondoren, Udal Korporazioak aurkeztu diren erreklamazioak ebatziz behin betiko erabakia hartuko du, eta erreklamaziorik aurkezten ez bada behin behinekoa zen erabakia behin betiko hartutzat ulertuko da.

3.- Behin betiko erabakiaren testu bateratua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da, eta ez da indarrean jarriko argitaratzen ez den bitartean.



3.1.2.- UDAL BARATZAK ARAUTZEKO ORDENANTZARI HASIERAKO ONARPENA EMATEA, BIDEZKO BADA.

2018KO MAIATZAREN 7KO HIRIGINTZA, OBRA, ZERBITZUAK ETA INGURUMEN BATZORDE INFORMATZAILEAREN IRIZPENA, UDAL BARATZAK ARAUTZEKO ORDENANTZARI HASIERAKO ONARPENA EMATEKO IRIZPENA.

AURREKARIAK

1.- Araudi honen helburua da Zumaia Baratze Parkeko lursailen erabilera, gozatzeko eta aprobetxamendua arautzeko behar diren baldintzak ezartzea, eta, halaber, baratze horiek adjudikatzeko prozedura, baratzeako laborantza-jarduera, erabiltzaileen erantzukizuna arautzea eta diziplina-araubidea finkatzea.

2.- Ikusirik 2018ko martxoaren 12 eta apirilaren 16ko Hirigintza, Obra, Zerbitzuak, Ingurumena eta Udaltzaingoen Batzarrean UDAL BARATZAK ARAUTZEKO ORDENANTZARI buruz informatu zela.

IRIZPENA

Ondorioz, 2018ko maiatzaren 7ko Hirigintza, Obra, Zerbitzuak, Ingurumena eta Udaltzaingoen Batzarrean, ondorengo botoekin:

Alde: Oier Korta Esnal (EAJ)
Arritxu Marañon Basarte (PSE)
Alex Oliden Antia (Bildu)
Josu Arrieta Arriola (Bildu)

Kontra:
Abstentzia:

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan dauden gehiengo sinplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 22.2.d) eta 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, ondorengo **PROPOSAMENA** egin da:

1.- UDAL BARATZAK ARAUTZEKO ORDENANTZARI hasierako onarpena ematea.

2.- Jendaurrean erakutsiko da 30 laneguneko espedientea, iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den biharamunetik hasita, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko.

Aipatutako apean erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin behineko akordia behin betikotzat hartua izango da, 7/1985 Legeko 49 artikuluen arabera.

Zumaian, 2018ko maiatzaren 7an
Oier korta Esnal
Alkatea



ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 12 boto (6 EAJ-PNV, 5 EH BILDU, 1 ES-SV)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA: 1.- Hasierako onarpena ematea, Udal Baratzak arautzen duen ordenantzari; jendaurreko agerraldian ezarriko da 30 lanegunez espedientea, iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den biharamunetik hasita, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko.

2.- Jendaurreko erakusketako epealdia amaitu ondoren, Udal Korporazioak aurkeztu diren erreklamazioak ebatziz behin betiko erabakia hartuko du, eta erreklamaziorik aurkezten ez bada behin behinekoa zen erabakia behin betiko hartutzat ulertuko da.

3.- Behin betiko erabakiaren testu bateratua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da, eta ez da indarrean jarriko argitaratzen ez den bitartean.

3.1.3.- ZUMAIKO UDALERRIKO BIDE PUBLIKO JAKINETAN IBILGAILUEN APARKAMENDUA ETA GUNE JAKIN BATZUEN ZIRKULAZIOAREN ETA ERABILERAREN ZENBAIT ALDERDI ARAUTZEKO ORDENANTZAREN LEHEN ALDAKETARI BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEA, BIDEZKO BADA.-

2018KO MAIATZAREN 14KO HIRIGINTZA, OBRA, ZERBITZUAK, INGURUMENA ETA UDALTZAINGOAREN BATZORDE INFORMATZAILEAREN IRIZPENA, ZUMAIKO UDALERRIKO BIDE PUBLIKO JAKINETAN IBILGAILUEN APARKAMENDUA ETA GUNE JAKIN BATZUEN ZIRKULAZIOAREN ETA ERABILERAREN ZENBAIT ALDERDI ARAUTZEKO ORDENANTZAREN LEHEN ALDAKETARI BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEKO IRIZPENA.

AURREKARIAK

1.- Udalaren osoko bilkurak, 2017ko maiatzaren 25ean Zumaia udalerriko bide publiko jakinetan ibilgailuen aparkamendua eta gunea jakin batzuen zirkulazioaren eta erabileraren zenbait alderdi arautzeko Ordenantza behin betiko izaeraz onartzea erabaki zuen, akordioan honako xedapena erantsi zitzaion:

2017KO XEDAPEN GEHIGARRIA



- Hasierako arautzearen eremua (2017an probaldia): Zubixikitik herriaren barrualdera doana. Hasiera batean 4 zonatan banatuko da. Errotazio handiko zona bat izango du (81 plaza) eta beste bat ordainpekoa (89 plaza, TAOrekin). Ardantzabideko zona urte osoan araututa egongo da. Larretxo zona berezia izango da (ikus erantsitako planoak).
- Egonaldi luzeko gunek (aldirietan): Estazioko industrialdea. Kirol-portuko aparkalekua. Loturak Txu-Txu trenarekin eta itsasontzi-zerbitzuarekin.
- Autokarabanentzako gunea: Sarauneko zati batean, kirol-portuan; gehienez bi egunez aparkatu eta kanpatu ahal izango da.
- Poligono ingurua (Alai, Basadi...) babesteko plana: zona horretarako hiru sarbideak erdi ixtea informatzaileen bitartez. Zona horretan bizi direnek dagokien egoiliar-txartela edukiko dute (doakoa) zona horretara sartu ahal izateko.
- Kontzientziazteko kanpainak: zumaia guztiei zuzendutakoak, mugikortasun jasangarria eta segurua bultzatzeko eta ohitura osasungarriagoez gozatzeko (lehen fasea ezartzen den bitartean eta ondoren). Ibilgailuekiko oinezkoa lehenesteko bidean aurrera egiteko.
- Balorazio-bilerak: 2017ko arautze-aldia bukatu eta gero, bilera batzuk egingo dituzte udalbatza osatzen duten alderdi guztiek barrutik prozesua baloratzeko (teknikoki eta politikoki).
- Herritarrek parte hartzeko bilerak: Udalean ordezkariak duten alderdiek esperientzia baloratu zumaia guztiei dei egingo zaie lortutako emaitzak aurkezteko eta probaldia baloratzeko, horretarako behar diren saio guztiak eginda. Esperientzian oinarrituta, 2018rako plana landuko da, alderdi hauek erabakita: arautze-aldia, arautze-zonak (zenbat, bakoitzak zer kale hartzen dituen eta ordainpeko zonak jarri ala ez), autokarabanen gunean eta egoiliar-txartelak izan dezakeen kostua. Herritarren aldetik bildutakoaren gainean lanean jarraituko da, horretarako "Biharko Zumaia Boga" plan estrategikoan erabilitako lan-metodologiari jarraituta; Udalaren bitarteko teknikoak erabiliko dira, eta aztertuko da kanpoko enpresa baten zerbitzua kontratatzeko aukera
- Lan-mahaia: teknikariek, ordezkari politikoek eta araututako zonetako herritarrek osatuko dute; azken horiek aukeratzeko zozketa egingo da parte hartzeko interesa agertzen dutenen artean.

2.- 2017ko Urriko Balorazio bilerak egin ziren eta jarraian Ordenantzaren lehen aldaketa lantzeko mahai tekniko politiko osatu zen. Mahai tekniko-politiko Udal Gobernuak ostalari eta merkatarien ordezkari banarekin indartu zen.

3.- Mahai tekniko-politiko 2017/12/19, 2018/01/09, 2018/01/30 eta 2018/02/15 elkartu da ordenantza lantzeko.



Zumaia Udala

2018IAKU0004-007-003

4.- 2017-10-12, 2017-10-23, 2017-11-14, 2017-11-28 eta 2018-02-20ko Hirigintza, Obra, Zerbitzuak, Ingurumena eta Udaltzaingoaren Batzordeetan ZUMAIKO UDALERRIKO BIDE PUBLIKO JAKINETAN IBILGAILUEN APARKAMENDUA ETA GUNE JAKIN BATZUEN ZIRKULAZIOAREN ETA ERABILERAREN ZENBAIT ALDERDI ARAUTZEKO ORDENANTZA idazteko irizpideen berri eman da.

5.- Ikusirik Udalei trafiko eta zirkulazio gaietan legez ematen zaizkien eskumenena aipatutako ordenantzaren aldaketa egin da.

6.- Ikusirik Udalbatzak, 2018ko otsailaren 27ko ezohiko bileran, hasierako onespina eman dio Zumaia udalerriko bide publiko jakinetan ibilgailuen aparkamendua eta gune jakin batzuen zirkulazioaren eta erabileraren zenbait alderdi arautzeko ordenantzaren lehen aldaketari hasierako onarpina eman zitzaiola.

7.- Ikusiri dokumentua agerraldi publikoan egon den epean bost alegazio aurkeztu direla.

8.- Ikusiri 2018ko Maiatzak 7ko Hirigintza, Obra, Zerbitzuak, Ingurumena eta Udaltzaingoaren Batzordean alegazioez eta Udal zerbitzu teknikoek alegazioei erantzunez egindako txosten teknikoaz informatu dela.

IRIZPENA

Ondorioz, 2018ko Maiatzaren 14ko Hirigintza, Obra, Zerbitzuak, Ingurumena eta Udaltzaingoaren Batzorde informatzaileak, honako botoekin:

Alde: Oier Korta Esnal (EAJ)
Alex Oliden Antia (Bildu)
Josu Arrieta Arriola (Bildu)

Aurka: 0

Abstentzioa: Arritxu Marañon Basarte (PSE)

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplea beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, honako PROPOSAMENA egin da:

LEHENA.- Ignacio Zubeldia (1. Alegazioa), Xabier Crespo Arraibi (2. Alegazioa) eta Iñaki Esnal-ek (3. Alegazioa) aurkeztutako alegazioak ONARTZEA

BIGARRENGOA: Nagore Garcia-k (eta beste 256 sinadura. 4.go Alegazioa) eta Alai 9, 11, Victoriano Arrate 2. 4, Izaga 1E eta Izustarri 1eko jabekideek. (5. Alegazioa. Jakinerazpenetako Sabino Egaña Antia eta 73 sinadura.) aurkezturiko alegazioa EZ ONARTZEA

HIRUGARRENGOA: ZUMAIKO UDALERRIKO BIDE PUBLIKO JAKINETAN IBILGAILUEN APARKAMENDUA ETA GUNE JAKIN BATZUEN ZIRKULAZIOAREN ETA ERABILERAREN



Zumaia Udala

ZENBAIT ALDERDI ARAUTZEKO ORDENANTZA-REN LEHEN ALDAKETA-ri BEHIN BETIKO ONESPENA ematea.

2018IAKU0004-007-003

LAUGARRENGOA: Ordenantzaren behin betiko onespeneren iragarkia eta Dokumentuaren textu bateratua GAOn argitaratzea.

Zumaia, 2018ko Maiatzaren 14a.
HIRIGINTZA, OBRA, ZERBITZUAK, INGURUMENA ETA UDALZAINGOAREN BATZORDEBURUA
Oier Korta Esnal

ALKATEA: Hau, izenburuak esaten duen bezala izango da trafikoa, edo aparkalekua arautzen duen behin betiko onarpena ematea, bidezko bada, gai hau asko landu da batzordetan eta gaurko batzordea gai nagusietako bat hau izango da ekarri duguna, besterik gabe bozkatzera pasako ginateke, Josuk hitza eskatzen du bozkatzera pasa aurretik, Josuk dauka hitza

JOSU ARRIETA (EH BILDU): Gure bozka azaltzeko behin behineko onarpena eman genuen bezala abstentzioarekin jarraituko dugu, proposamen batzuek egin genituen eta ez zirenak sartu eta jarrera berdina mantenduko dugu.

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 6 boto (6 EAJ-PNV,)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 6 boto (EH BILDU, 1 ES-SV)

ERABAKIA: 1.- Zumaia udalerriko bide publiko jakinetan ibilgailuen aparkamendua eta gune jakin batzuen zirkulazioaren eta erabileraren zenbait alderdi arautzeko ordenantzaren lehen aldaketari behin betiko izaeraz onartzen da

2.- Ordenantzaren behin betiko onespeneren iragarkia eta Dokumentuaren textu bateratua GAOn argitaratzea.

3.2.- PROPOSAMENA:



2018IAKU0004-007-003

Zumaia Udala 3.2.1.- ZUMAIAKO 03 HA ODIETA SAN JOSEKO HIRI BERRIKUNTZARAKO PLAN BEREZIAREN LEHEN ALDAKETARI BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEA, BIDEZKO BADA.-

Urgentzia berresteko bozkatzeari ekin diote.

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 12 boto (6 EAJ-PNV, 5 EH BILDU, 1 ES-SV)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA: Gaia tratatzea erabakitzen da

ZUMAIAKO 03 HA ODIETA SAN JOSEKO HIRI BERRIKUNTZARAKO PLAN BEREZIAREN LEHEN ALDAKETARI BEHIN BETIKO ONARPENA EMATEKO PROPOSAMENA

AURREKARIAK

1.- Ikusirik 2018ko Otsailaren 22ko 144/2018 zk. duen Alkatetza Dekretuz San Jose 28 ko jabekideek sustatu eta ERAIKI SL, Ingeniaritza eta Arkitektura bulegoko Olatz Otaegi Gurrutxaga arkitektoak sinatutako Zumaia 03 HA Odieta San Joseko Hiri Berrikuntzako Plan Bereziaren 1. go aldagetari hasierako onespena eman zitzaioa.

2.- Ikusirik Espedientea jendaurrean jarri 20 lanegunez eta dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta lurraldean tirada gehien duen egunkarian (DV) iragarkia argitaratu da, interesatuek proiektua aztertu eta hala badagokio, bidezko alegazioak aurkez ditzaten.

3.- Ikusirik Espedientea agerraldi publikoan izan zenean 4 alegazio aurkeztu zirela:

1. Alegazioa: Raul Barroso Cascos
2. Alegazioa: Maria Arantzazu Cuenca Cendoya
3. Alegazioa: Fermín Pato Fernandez eta 8 sinadura (San Jose 27)
4. Alegazioa: Roberto Tejera Bollain eta 7 sinadura (San Jose 30)

4.- Ikusirik 2018ko Maiatzaren 14ko Hirigintza batzordean aurkeztutako alegazioen berri eta Udal zerbitzu teknikoek aurkeztutako txosten teknikoaren berri eman dela.

PROPOSAMENA



LEHENA.- Zumaia udal zerbitzu teknikoen txostena arabera.

- Raul Barroso Cascos-ek aurkeztutako alegazioa EZ ONARTZEA.
- María Arantzazu Cuenca Cendoya-k aurkeztutako alegazioa EZ ONARTZEA.

- Fermín Pato Fernandez eta 8 sinadurek (San Jose 27) aurkeztutako alegazioa EZ ONARTZEA.
- Roberto Tejera Bollain eta 7 sinadurek (San Jose 30) aurkeztutako alegazioa EZ ONARTZEA.

BIGARRENA.- Dekretuz San Jose 28 ko jabekekideek sustatu eta ERAIKI SL, Ingeniaritza eta Arkitektura bulegoko Olatz Otaegi Gurrutxaga arkitektoak sinatutako Zumaia 03 HA Odieta San Joseko Hiri Berrikuntzako Plan Bereziaren 1.go aldaketari BEHIN BEHINEKO onarpena ematea.

HIRUGARRENGOA: Onartutako dokumentua Foru Aldundiko hirigintzako plangintzaren erregistro administratibora bidaltzea eta erabakia eta agiri bateratua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta lurralde historikoan hedadura gehien duen egunkarian edo egunkarietan argitaratzea

Zumaia, 2018ko Maiatzaren 14a.
HIRIGINTZAKO BATZORDEBURUA
Oier Korta Esnal

Proposamena bozkatu dute.

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 12 boto (6 EAJ-PNV, 5 EH BILDU, 1 ES-SV)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA:. 1.- Zumaia 03 ha odieta san Joseko hiri berrikuntzarako plan bereziaren lehen aldaketari behin betiko izaerarekin onartzea.-

2.- Behin betiko onespeneren iragarkia udaleko iragarki taulan eta GAOn argitaratzea.



4.- GIZARTE ZERBITZUAK.-

4.1.- PROPOSAMENA:

4.1.1.- GIPUZKOAKO CROHN ETA ULTZERADUN KOLITISAREN GAIXOEN ELKARTEAK AURKEZTURIKO EGITASMORA ATXIKITZEKO ADIERAZPENA.

Urgentzia berresteko bozkatzeari ekin diote.

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 12 boto (6 EAJ-PNV, 5 EH BILDU, 1 ES-SV)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA: Gaia tratatzea erabakitzen da

ALKATEA: Gaur ekartzen dugun proposamen hau, ez dakit, inork ezagutzen duen gaixotasun hau Crohn eta Kolitis Ultzerosoaren gaixoen elkarteak ekarri duena Zumaia udalera, azalpen bat emango dizuet zertan datzan eta pixkat egitasmoa edo zer den proposatzen dutena Zumaiarako eta beste udalerrri batzuetan ere horrelako ekimen hau edo proiektu hau martxan jarri izan dute.

Irakurtzera pasako naiz zuzenean

“ BEHARRA DAUKAT

EGITASMOA

“BEHARRA DAUKAT!” egitasmoa kutsakorra ez den osasun-arazoa edukita, komuna presaz erabili behar duten pertsonentzat pentsatua dago. Gaixo hauen arazorik larrienetarikoa eta benetan arduratzen duena, etengabe eta batzuetan ustekabean, komunera joan beharra da.

Zenbait pertsonak, egoera honen aurrean, bere bizitza-kalitatea gutxietsita ikusten dute, etxetik ateratzea edo lagunarteko harremanak mantentzea zaila delako erabilgarria den komun bat gertu ez badago beharra dagoenean.

XEDEA

1.- Pazienteen bizi-kalitatea hobetzen lagundu, premia duten une eta lekuetan komunera azkar eta doan joateko aukera emanda.



Zumaiako Udala

2018IAKU0004-007-003

2.- Hesteetako hanturazko gaixotasunei buruzko informazioa zabaldu (Crohn gaitza eta Kolitis Ultzerosa) eta paziente horiek dituzten premia eta beharren inguruko kontzientzia eragin gizartean.

“BEHARRA DAUKATI!” ekimenak bat-bateko komunera joan beharra izaten duten pertsonak ditu kontuan, kutsagarria ez den osasun arazoren batek eragindako premia larria izaten duten pertsonak, alegia.

Paziente hauen kezkarik larrienetako bat da bat-batean eta etengabean komunera joateko premia izatea. Zenbait egoeratan, ezin izaten diote kakagureari eutsi, eta arropa zikintzen dute. Bizi-kalitatea ere galtzen dute zenbaitzuk egoera hori dela-eta, etxetik ateratzea kostatzen baitzaie, premia dutenean komunik aurkituko ez ote duten beldurrez.

Egun, komun publikoak urriak direnez, Beharra Daukat ekimenak komunaren sare bat jartzen du gaixoen esku, hau da, tabernari, saltoki, erakundeek... utzita. Gaixoak txartel bat izango du (medikuak ziurtatuta) eta txartel hori erakutsiz komuna erabili ahal izango du.

Jakiteko zein komun dauden erabilgarri, gaixoak APP bat jeitsi dezake bere mugikorrean, non zehazten diren proiektuari atxikita dauden guneak eta bestetik atxikitutako saltokia, taberna, erakundeak.... Pegatina bat jarriko du ikusgai.

Gaixoak jakiteaz gain, gaixotasuna aditzera ematea da honen xedea.

Beraz, ekimenak bi helburu ditu: batetik komunaren sare hori osatu eta bestetik Osakidetzarekin ziurtatu sendagileek proiektua ezagutuko dutela, behar duenari txartela onar diezaiola.

2016an ekimenaren proiektu pilotoa aurrera eramanean zen OSI Donostialdearen laguntzarekin. Egitasmoa donostialdean jarri zen martxan, batik bat.

2017an ekimena Gipuzkoako herrialde osora hedatu zen eta 2018 urtearen zehar, Euskal Herri guztira zabaltzeko asmotan gabiltza. “

Donostia, apirilaren 15a
ACCU Gipuzkoako Lehendakaria, Jone Argoitia Alkorta



ALKATEA: Hau pixkat da plenotik pasatzea egoki ikusi dugu, nolabait herrian udalak bat egiten duelako egitasmoarekin eta hemendik aurrera pausoak emango dira oharrean jasotzen duen bezala herriko komertzio eta ostalaritzako tabernak e.a. nolabait inplikatzeko eta pegatzen bidez gaixotasun hau, edo ezgaitasun hau dutenak, ezgaitasuna ez dakit den konkretuki baina mapa bat edukitzeko eta estusuna baldin badute ba... jakiteko Zumaiaren kasuan non izango dituzten puntu kolaboratzaile horiek edo jakitun direnak gaitz honen sortu dituen eragozpenak herritarrengan ez?

ERABAKI ZATIA



Zumaia Udala

2018IAKU0004-007-003

Aldeko botoak: 12 boto (6 EAJ-PNV, 5 EH BILDU, 1 ES-SV)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA: 1.- Gipuzkoako Crohn eta ultzeradun kolitisaren gaixoen elkarteak egindako eskaera onartzen da.

2.- Crohn eta ultzeradun kolitisaren gaixoen egitasmoaren barne komunen eta leku publikoak erabiltzeko erraztasunak ematea.-

4.2.- IRIZPENA:

4.2.1- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA ZUMAIKO UDALAREN ARTEKO, ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZU FINANTZATZEKO HITZARMENA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.-

2018KO APIRILAREN 19KO GIZARTE ZERBITZUETAKO BATZORDEAREN IRIZPENA, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA ZUMAIKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA, ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA FINANTZATZEKO.

AURREKARIAK

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta ZUMAIKO Udalak sinatutako hitzarmen honen xedea da udalerrian mendekoen kalifikazioa dutenei eta arreta jaso behar duten beste kolektibo batzuei emandako Etxeko Laguntza Zerbitzuaren foru finantzaketarako baldintzak definitzea, Erakunde arteko Mahaiak alde aurretik adostuta.

Eusko Legebiltzarraren 2008ko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, gizarte zerbitzuenak, erakunde publikoen ardurapeko zerbitzu sozialak sistema integratu batean antolatzen eta egituratzen ditu, Euskal Autonomia Erkidegoko esparruan zerbitzu horiek hartzeko eskubidea herritar guztiei bermatzeko.

Aipatutako legearen 22.1 artikuluan Etxeko Laguntza Zerbitzua jasotzen da lehen mailako arretako gizarte zerbitzuen barruan, eta udalen eskumenekoa da zerbitzu horiek eskaintzea, 42.4 artikulua ezarritakoaren arabera.

Nahiz eta, Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legearen arabera, zerbitzu hori eskaintzea udalen eskumenekoa izan, Gipuzkoako udalek eta Gipuzkoako Foru Aldundiak adostu dute, Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Mahaiaren barruan, Etxeko Laguntza Zerbitzua kofinantzatzea 2017-2019 aldian.

Kudeaketa publikoaren eraginkortasuna eta Etxeko Laguntza Zerbitzuaren erabiltzaileentzako arreta hobetzeko, eta eskumen banaketarantz hurbiltzeko xedez, bi administrazioek bidezkotzat jo dute lankidetzak hitzarmen berri bat sinatzea, zerbitzuaren finantziario sistema arautze aldera.

Bi administrazioen helburua da Etxeko Laguntza Zerbitzua Kofinantzatzen jarraitzea, baina Foru Aldundiaren parte hartzea zehaztuko da denborari dagokionez, hitzarmenaren III. eranskinean jasotako erabakiak ezarritakoari jarraituz.



IRIZPENA

Ondorioz, 2018ko apirilaren 19an Gizarte Zerbitzuetako Batzorde informatzaileak, ondorengo botoekin:

Alde: 5 (2 EAJ; 2 Eh Bildu; 1 PSOE)
Aurka: 0
Abstentzioa: 0

ALDEKO irizpena eman du eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozeduraren Arautegiaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, araututakoari jarraituz, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo osoa beharko delarik, apirilaren 2ko 7/1985 Toki Erakundetako Oinarrietako 47.2.h) artikuluan ezarritakoaren arabera, ondorengo PROPOSAMENA egin da:

1. Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Zumaia Udalaren arteko, Etxeko Laguntza zerbitzua finantzatzeko Hitzarmena ONARTZEA, hurrengo baldintzen arabera:

Hitzarmen honen seigarren klausulan adierazitakoaren ondorioetarako, Gipuzkoako udalari guztiei zuzendutako Foru Aldundiaren gehienezko ekarpena II. eta III. Eranskinetan azaltzen dena izango da.

Hiruhileroko ekarpena urtekoaren %25aren baliokidea izango da.

Adierazitako zenbatekoek foru ekarpenaren gehieneko kopurua finkatuko dute eta, beraz, kopuru hori ez da aldatuko, nahiz eta zerbitzuaren jarduerak igoeraren bat izan.

Etxeko Laguntza Zerbitzuaren ordu bakoitzeko tarifaren kopurua oinarritzat hartuko da seigarren klausulan araututako foru finantzaketa zehazteko, zehazki hauek:

- Orduko tarifa astegunetan: 18,87 €
- Orduko bakoitzeko igande eta jaiegunetarako tarifa: 22,66 €

Udalak emandako zerbitzuaren prezioa gehieneko tarifa baino txikiagoa balitz, foru ekarpenaren kalkulua egiteko erreferentziatzat hartuko da 2018. Urterako udalean 2018ko urtarrilaren 1ean indarrean dagoen orduko prezioaren kopurua eta 2019ko urtarrilaren 1ean dagoena 2019. Urterako, eta urtarrilaren 1ean dagokion urterako, hitzarmen honen indarraldia luzatzen bada.

Udalak etxeko laguntzaren zerbitzua arautzen duen udal erregelamendua egokitu beharko du Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legearen eskumen banaketara.

Gipuzkoako Foru Aldundiak hiru hilean behin ordainduko du zortzigarren klausularen c) atalean jasotako hiruhileko naturala dagokion azken egunetik hasi eta hilabeteko epean, zerbitzuaren foru finantzaketarako aldagaiak seigarren klausulan ezarritakoak, aplikatuz ateratzen den zenbatekoa.

Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokion zerbitzu finantzaketa zehazteko, kontuan hartuko dira aldagai hauek:

a) Hiruhileko fakturazioa:

Eskainitako zerbitzuen ordu kopurua hirugarren klausulan adierazitako zerbitzuaren tarifaz biderkatu ondoren ateratzen den emaitza izango da.

b) Baterako ordainketa:

Erabiltzaileek egindako ekarpenen batura da.



c) Aldundiaren ekarpen teorikoa:

Zenbateko hori a) atalean adierazitako hiruhileroko fakturazioaren eta b) atalean adierazitako erabiltzaileen koordainketaren arteko diferentzia da.

d) Aldundiaren ekarpen teorikoa aurrekontura egokitua:

Udalerri guztiei zuzendutako Aldundiaren ekarpen teorikoei keofiziente murriztaile bera aplikatuz ateratzen den zenbatekoa da, baldin eta ekarpenen baturak gainditzen badu hiruhileroko ekarpen osoa, bigarren klausulan zehaztutakoa.

Koefiziente hori zatiketa hori emaitza izango da: Aldundiaren hiruhileroko gehieneko ekarpena, aurreko paragrafoan adierazitakoa, Aldundiaren ekarpen teorikoen guztizkoaz zatitzea.

e) Aldundiaren oinarriko ekarpena:

Ekarpena izango da d) ataletik ateratzen den emaitza –Aldundiaren ekarpen teorikoa aurrekontura egokituta bider % 75, hitzarmena indarrean dagoen bitartean.

f) Aldundiaren gehieneko ekarpena hobekuntzengatik:

Aldundiaren aurrekontuaren arabera ekarpen teorikoaren eta Aldundiaren oinarriko ekarpenaren arteko aldea da, eta zerbitzuaren eskaintzan hobekuntzak finantzatzeko erabiliko da.

Hobekuntzak direla eta, Aldundiaren gehieneko ekarpena udal mailan nahiz maila globalean egingo da (udalerri guztien batukaria).

Hitzarmen honen I. eranskinean azaltzen dira hobekuntzen tipologia eta tipologia bakoitzari emandako ponderazioa.

Honela egiaztatuko dira:

- 2018. Urtea: hobekuntzak udal erregelamenduan edo ordenantza fiskalean jasota edo, bestela, idazkariak egindako ziurtagiriaren bitartez edo Etxeko Laguntza Zerbitzua eskaintzen duten enpresen kontratuetan hobekuntzak jasota.
- 2019. Urtea: hobekuntzaren benetako aplikazioa ebaluatzeko erabili beharreko adierazleen formula kuantitatiboaren bidez; formula hori Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Mahaian adostuko da, horretarako eratutako batzorde teknikoak proposatuta.

g) Aldundiaren lehendabiziko ekarpen eraginkorra hobekuntzak direla-eta:

Udalerrian egindako eta egiaztatutako hobekuntza bakoitzerako f) atalean zehaztutako kopurua biderkatuko da hobekuntzari emandako ponderazioarekin.

Udalerri mailan, modu horretan kalkulaturako zenbateko guztien emaitza izango da Aldundiak egingo duen ekarpen eraginkorra lehendabiziko hobekuntzengatik.

Udalerri guztien baturak zenbateko globala emango du.

Halaber, aipaturako zenbateko globalaren arabera udalerri bakoitzari dagokion portzentaje bertikala kalkulatu da.

h) Hobekuntza Fondoaren soberakina:

f) eta g) ataletan kalkulaturako zenbateko globalen arteko diferentzia da. Soberakina osoa birbanatuko da udalerrien artean, g) atalean adierazitako portzentaje bertikalaren arabera.

i) Aldundiaren bigarren ekarpen eraginkorra hobekuntzak direla-eta:

g) eta h) ataletan kalkulaturako zenbatekoen batura da.



j) Ateratzen den foru ekarpena:

e) eta i) ataletan zehaztutako zenbatekoen batura da.

Abonu sistema honako hau izango da:

a) Likidazio aldia:

Urteko azken hiruhilekoaren likidazioa hurrengo ekitaldiko aurrekontuaren kargura egiten denez, likidazio aldiak aurreko ekitaldiko azken hiruhileko naturala eta uneko ekitaldiko lehen hiru hiruhilekoak hartuko ditu.

b) Likidazioa:

Hiruhileko likidazio prozesua sinplifikatzeko xedez, honela egingo da Aldundiaren oinarritzko ekarpenaren eta bigarren hobekuntzak direla-eta Aldundiak egingo duen ekarpen eraginkorraren konputua:

- 1.- Lehendabiziko hiru likidazioak, oinarritzko ekarpenaren arabera, erabat.
- 2.- Laugarren likidazioa, berriz, hobekuntzei dagokien ekarpenaren arabera, erabat.

c) Bidalketa epeak betetzea:

Likidazio sistemak udalerrri guztiei dagokien informazioa izatea eskatzen duenez, zortzigarren klausulan aurreikusitako epea amaitu ondoren, informazio hori bidali ez duten udalei posta elektronikoz jakinaraziko zaie astebeteko epe luzaezina dutela eskatutako informazioa aurkezteko. Azken epe hori ez betetzeak hiruhilekoari dagokion likidazioa galtzea ekarriko du, eta udalerrria kanpoan utziko da kalkulu guztiak egiterakoan.

Informazio sistema.

a) Udalak Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku jarriko ditu beharrezkoak diren datu guztiak, gutxienez jarraian aipatzen direnak: zerbitzuaren prezioa eta kostua, pertsona bakoitzeko xehetasuna zerbitzuaren ordu kopuruari dagokionez, erabiltzaileen koordainketa eta, behar bada, aplikagarri zaizkion hobekuntza motak. Hori guztia helburu hauekin:

1.- Zerbitzuari dagokion likidazioa egitea.

2.- Zerbitzuaren egoera ezagutzea gai hauen inguruan: mendekotasuna duten pertsonen emandako arreta eta, hala dagokionean, beste kolektibo batzuen emandakoa; hobekuntzen ezarpen eraginkorra; eta bete gabe egon daitezkeen beharrak.

3.- Arreta jaso duten mendeko pertsonen buruzko datuak ematea IMSERSOri, kontuan hartuta Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunari Arreta Eskaintzeko Sistemak definitutako espezifikazioak, araudiaren aipamen hauen bidez zehaztutakoak:

- SSI/2371/2013 Agindua, abenduaren 17koa, Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunari Arreta Eskaintzeko Sistema arautzen duena (BOE 302 zk., 2013/12/18, I. atala, 100.833 orrialdea)
- 1051/2013 Errege Dekretua, abenduaren 27koa, autonomia pertsonalerako eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeko sistemaren prestazioak arautzen dituena (alegia, Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak ezarritako prestazioak) (BOE 313 zk., 2013/12/31, I. atala, 107.128 orrialdea)



b) Gipuzkoako Foru Aldundiak tresna informatiko egokia eskainiko du, hau da, *Extranet SAD*.

Tresna horren erabilera eragotzi gabe, Gipuzkoako Foru Aldundiak Udalaren eskura bertsio aurreratu bat jartzen duen neurrian, Udalak azken tresna hori erabiliko du.

c) Hauek dira informazioa bidaltzeko gehieneko epeak:

- a) lehen hiruhilekoa: apirilak 30
- b) bigarren hiruhilekoa: uztailak 31
- c) hirugarren hiruhilekoa: urriak 31
- d) laugarren hiruhilekoa: urtarrilak 31

Hitzarmen honen xede diren klausulen jarraipena egiteko, batzorde bat eratu ahal izango dela adostu dute bi alderdiek, non ordezkariak parekidea izango duten.

Hitzarmena amaitu edo iraungiko da arrazoi hauetakoren bat baldin badago:

- a) Bi aldeen arteko adostasuna.
- b) Aldeetako batek uko egiten badiio hitzarmenari, beste aldeari jakinaraziko dio hitzarmena amaitutzat emateko aurreikusi den data baino bi hilabete lehenago, gutxienez.
- c) Aldeek hitzarmenean aurreikusitako baldintzak eta betekizunak betetzen ez badituzte.

Hitzarmen honek izaera administratiboa du, eta bere interpretazio eta garapenerako zuzenbide administrazioko antolamendura joko da, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzioa espresuki beteta.

Hitzarmen hau indarrean jarriko da sinatzen den egunean, eta 2017ko urriaren 1etik aurrera izango ditu ondorio ekonomikoak, eta 2019ko irailaren 30 bitarteko indarraldia izango du. Hitzarmenaren epea amaitzerakoan besterik gabe luzatu ahal izango da urtez urte, betiere aurrekontu xedapen egokia eta nahikoa baldin badago luzatutako ekitaldirako.

2.- Alkateari beharrezkoak diren agiriak sinatzeko ahalmena ematea.

3.- Erabaki hau jakinarazteta

Zumaian, 2018ko apirilaren 19an
GIZARTE ZERBITZUETAKO BATZORDEBURUA
Cristina Vicente Iciar

ALKATEA: Batzordean gai hau eraman da eta diktaminatu da, hau da Foru Aldundiak aldaketa batzuek sortu ditu, sistema berri bat jarri du dirulaguntza hori banatzeko orduan, halako formula bat planteatzen du Gipuzkoakoudalerrri denei diru hau banatzeko orduan, parte bat finkoa da eta beste zati bat jartzen da udal bakoitzak hartzen dituen neurriak ba... gizarte zerbitzuetan osatzeko edo eskaintzeko ahalik eta zerbitzu gehien eskaintzen dituenak edo gutxiengo batzuek betetzen dituenak ba... beste zati laurden hori banaketa sartzen dira udalerrri horiek ez? Pixkat konpromisoa hartzeko gainontzeko udalerrriak ere bai ba... aldundiak hartzen duen bezala bere



Zumaia Udala

2018IAKU0004-007-003

aurrekontuetan ba... udalerrri bakoitzak ere bai ba... apustu bat egiteko gizarte zerbitzu on batzuen alde, ez?

Honen inguruan, bozkatzera pasako gara, inork zer bait esateko badauka, Alexek eskatzen du hitz,

ALEX OLIDEN (EH BILDU): Bai gure bozka esplikatzeke, esan EH Bilduk baiezkoa emango diola hitzarmen hau sinatzeari, Zumaia hitzarmena beharrezkoa duelako eta guk gure aldetik gizarte zerbitzuak mantendu eta hobetzeko apustu irmoa egiten dugulako, baina nahiko genuke iruzkin kritiko bat egin.

Egia da zerbitzu hau etxez-etxeke laguntza zerbitzua udalaren eskumena dela, legez, gizarte zerbitzuen legeak hala dio, baina baita ere egia da eskumen aldaketek legez, finantziarioa berekin eraman behar dutela, hori udal legeak dio, eta hori oraingoz ez dago bermatuta.

Zumaia San Juan Egoitza transferitu zuenez, eta jabetza publikoan bermatuz gainera, zegokion gastua arindu egin zuen bere aurrekontuetan baina Gipuzkoa osoan bere osotasunean hartuta eta Foru Funtsaren bidez finantziarioa bermatzen ez baldin bada murrizketa baten aurrean gaude eta herritarrei eman beharreko zerbitzuaren kaltean izango litzateke eta hori salagarria iruditzen zaigu eta horregatik nahiz eta baiezko bozka eman iruzkin hori egin nahi nuen.

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 12 boto (6 EAJ-PNV, 5 EH BILDU, 1 ES-SV)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA: 1.- Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Zumaia udalaren arteko, etxeke laguntza zerbitzua finantzatzeko hitzarmena onartzen da.-

2.- Alkateari hitzarmena formalizatzeko beharrezkoak diren agiriak sinatzeko gaitasuna ematea.-

5.- TURISMO ETA MERKATARITZA.-

5.1.- IRIZPENA:

5.1.1.- 2018-2021 URTEETARAKO, ZUMAIKO UDALEKO TURISMO PLANA BEHIN BEHINEKO ONARPENA EMATEA, BIDEZKO BADA.-



Zumaia Udala 2018ko MAIATZAREN 10EKO TURISMO ETA MERKATARITZA BATZORDEKO,
2018.2021 URTEETARAKO TURISMO PLANA ONARTZEARI BURUZKOA.

2018IAKU0004-007-003

AURREKARIAK

- 1.- 2015-2025 urtera bitarterako Biharko Zumaia Boga, Zumaia Plan Estrategikoa egin zuen udalak.
- 2.- Plan Estrategikoan jasotzen den 16. helburu estrategikoa dio "kalitatezko turismo jasangarria sustatuko dela, herritarren nortasuna mantenduta".
- 3.- Ondorioz, "Bertako ongizatea eta turistikoko elkarbizitza bermatuz Zumaia Turismo Plana" garatu da lanketa parte hartzaile baten bidez 2018-2021 urteetarako.
- 4- Udalbatzarrean onartzea behorrezkotzat jo da. Zumaia Turismo Planaren garapena eraginkorragoa izan dadin.

IRIZPENA:

Ondorioz, 2018ko maiatzaren 10eko turismo eta merkataritza batzorde informatzaileak, ondorengo botoekin:

Alde: Jon Iraola (EAJ-PNV)
Ane Arregi (EAJ-PNV)
Arritxu Marañon (PSE)
Alex Oñden (EH-BILDU)
Joseba Azpiazu (EH-BILDU)

ALDEKO irizpena eman du azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuz onartutako Toki Erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoko Erregelamenduaren 135.3 artikulua xedatutakoaren arabera, eta honako Proposamen hau udalbatzako osoko bilkuraren iritzipean jartzea erabaki du, Toki araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47. artikuluan araututakoari jarraituz eta horren arabera, erabakia udalbatzako bertan daudenen gehiengo sinplez hartu beharko da:

- 1.- 2018-2021 urteetarako, Zumaia Udaleko Turismo Planari behin behineko onarpena ematea.
- 2.- Jendaurrean erakutsiko da 30 lanegunez espedientea, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari ofizialean argitaratzen den biharamunetik hasita, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko. Aipatutako apean erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin behineko akordioa behin betikotzat hartua izango da, 7/1985 legeko 49 artikulua arabera.

Zumaian, 2018ko maiatzaren 10ean
Jon Iraola Rezola,
Zumaia Udaleko turismo eta kultura batzordeburua,

ALKATEA: Puntu hau, aste horretan egin genuen aurkezpena, gaiak urtebete pasatxo eraman du lan honen lanketak, argitaratu dira zati batzuek, nondik norakoa izan den bai ibilbidea eta landutako oinarriak eta dokumentua hor dago, aurkezpena egin zen asteartean esan bezala eta ibilbide luza izan du,



Zumaia Udala

2018IAKU0004-007-003

translokal enpresak gai hau landu du eta asteartean beronen aurkezpenean eskertu nuen bezala herritarrak hartu zuten konpromisoa Plan hau lantzeko orduan, ehun pertsonatik gora izan ziren aukeratuak elkarrizketak egiteko banan-banan, pixkat informazioa eta bakoitzak bere lekutik, bere jakinduriagatik, bere ezagutzagatik, egindako ekarpenak jaso ziren Plan honetan eta hortik lehen esan eta bezala dokumentu bat ekartzen du gero bi laborategi egin ziren irekiak baita ere eta gero behin osatuta dokumentazio hori batzordeetatik pasa dira eta hor batzordeetan landu dira herritarrak eskertu ditut eta baita ere oposizio ere bai gero batzordeetan, aurreko partean ere nola ez! hartu dute parte alderdi politiko guztiak baina gero ere batzordetan eskertu ere bai lan hau fintzerako orduan alderdi guztiak izan duten prestutasuna eta besterik ez, azkenean dokumentua bukatzean iritsi gara eta gaur hona ekartzen dugu bere onarpena bozkatzera pasatzeko, ez? Honen inguruan, ez dakit, alderdi politiko batek hitza nahi duen eskatu, Alexek eskatzen du hitza

ALEX OLIDEN (EH BILDU): Bai, gure bozka esplikatzeko orduan pixkat luzea izango da, barkatuko didazue baina iruditzen zait ondo etorriko zaiola gehien bat plana irakurtzeko astirik hartu ez dutenei, komentatu nahi ditudalako gure hitzez behintzat plan honek dauzkan gabezi txikiak eta onurak ere bai.

“ EH Bilduk, Turismo Plan honi. BAIEZKO KRITIKOA emango dio gaurko osoko bilkuran.

Baiezkoa, egindako lan handiaren ondorioz, gure ekarpen ugariak barne, gauza positibo asko ikusten dizkiogulako. Eta kritikoa, badirelako oraindik kritikagarriak iruditzen zaizkigun baieztapenak, nahiko ugariak gainera.

Plan honek, bere laburpen exekutiboan. Turismoa olatu handi bat dela (edo izan daitekeela) dio. Itsasertzean bizi garenok ederki dakigu olatuaren golpea bizkarrez eta ustekabean jasotzea baino askoz hobeto dela olatua hartu eta bere indarra aprobetxatzen saiatzea, leku segurura ailegatzeko.

Parte-hartze handia izan da eztabaida prozesu guztian, eta eskertzekoa da, metodologia berritzailea erabili dugu, esperimentala, eta beharbada ezin izan diogu proposatzaileak nahi beste zuku atera, agian aurrerantzean lortuko dugu.

Baina zuzenean,

Plan honek dioenarekin sartuz, hitzez hitz dio:

- 56-60 or. AMIAN (DAFOan) puntu batzuek aipatzen ditu
 - Zumaian hartzen ez diren erabakiek inpaktoa sortzen dute, inpakto horien kudeaketa zuzena bermatu beharra dago, iraunkortasunaren izenean.
 - Etxebizitza turistikoak modu jasangarrian kudeatu behar dira.
 - Bisitariak jasotzeko kapazitatea neurtu behar da, natur eremua eta espazio publikoa babesteko neurri prebentiboak hartu behar dira.
 - Turismoaren gehiegizko hazkundeak egitura sozioekonomikoa eralda dezake.
 - Turismoaren hazkunde iraunkorrek enplegu prekarioa sortzeko arriskua dago (baita ere dio lanpostuen kalitatea hobetzeko eta natura bermatzeko aukerak ematen dituela, ikusiko dugu)
 - Zumaian 3/4ak zerbitzu sektorean lan egiten dutela eta, turismoa bultzatzeko arrazoiak daudela dio planak, LAN BALDINTZA DUINAK bermatuz, betiere.
 - Urola Itsasadarra babestu behar dela, Plan Berezia berraktibatuz.
 - Emakumeen ahalduntzea bultzatzeko ematen duela turismoak
- 64. Orrialdean, Galdetegiaren emaitzak aipatzean:



- Zumaiarrok balio naturalei buruzko kezka handia dugula esaten du.
- Bisitariak onura gisa hartzen dira (%61) hain zuzen, eta %50 bisitari gehiago hartzearen alde dago nahiz eta %39 kontra egon. Baina bueno (interesantea litzateke inkesta edo galdeketa zientifikoago bat egitea, datu hauei sinesgarritasuna kendu gabe, noski, beharbada gero aipatuko den TURISMO BEHATOKIA erabiliaz).
- 69. Orrialdean, Elkarrizketak eta hauen ondorioz eratorri diren bektore edo ardatz estrategikoak aipatzean, hain zuzen esaten du:
 - LETORKEENARI AURREA HARTU behar diogu.
 - Etxebizitza turistikoak arautu egin behar dira.
 - Turistak jasotzeko gaitasuna ezagutu beharra dago, espazio publikoaren okupazioari, hau da, (masifikazioari) eta natur-guneen erabilerari mugak jartzeko, premiazkoa baldin bada behintzat, edo hala erabakitzen baldin bada.
 - Parte-hartze bidez turismoaren jarraipena egin eta ERABAKIAK hartzeko tresnak sortu behar dira, Turismo Mahaia eta Turismo Behatokia proposatzen ditu plan honek.
- 75. Orrialdean, 1. Laboratorioan egindako lana azaltzerakoan, esaten du:
 - Kudeaketa onena "SALDU BAINO LEHEN ZAINDU"
 - Erakundeen arteko koordinazioa behar da Ingurune naturalaren babesera zuzendutako politiken eta turisten saturazioa bultzatzen duten jardueren arteko ezegonkortasuna saihesteko, hau dena hitzez-hitz.
- 84. Orrialdean, helburu operatiboak deskribatzerakoan
 - 4. Helburu operatiboa hau da: Turismoak herritarrengan sortzen dituen kezkei erantzun egokia ematea. Balizko masifikazioak naturaren babesean, elkarbizitza eta panorama sozioekonomikoan izan ditzakeen eraginei aurrea hartuz mugak jarri eta babes neurriak jarriko dira.
 - 5. Helburu operatiboan LIDERGO KOLEKTIBO KOMUNITARIOA proposatzen da. (gure iritziz Turismo Mahaian gauzatu beharko litzatekeena).
 - 9. Helburu operatiboan garena ezagutaraztea aipatzen da, eta nortasuna mantentzea ezinbestekoa ikusten da.

Orokorrean planean Geoparkeari ematen zaion protagonismoa turismoa kudeatzerakoan oso ondo ikusten dugu.

Aipatutako kontu guzti hauek positiboak dira guretzako.

Baina badira kritikagarriak iruditzen zaizkigun baieztapenak, eta, berriro hitzez hitz, planak dio:

- 20. Orrialdean, Garapen Iraunkorreko 2030 Agendan Garapen Iraunkorrerako 17 helburuak azaltzen dira (NBEak 2015ean ezarriak), eta plan honek hiru aipatzen ditu, hiru helburu, hain zuzen 17 horietatik: 8. Helburua GUZTIONTZAKO HAZKUNDE EKONOMIKO JARRAITUA, INKLUSIBOA ETA JASANGARRIA aipatzen du (beharbada atrebentzi handiegia da NBEa kuestionatzea gure aldetik, baina hazkunde jarraitua eta jasangarria ez dira bateragarriak, gure iritziz) (honek erakusten du "Garapen iraunkorra" eta "Jasangarria" terminoak irristakorrak direla semantikoki, esanahia ere ez dela oso finkatua. Aipatzen diren beste bi helburuekin (12. Eta 14.)ez dago inolako arazorik.
- 23. Orrialdean, Euskadi 2020 Plangintza Estrategikoan ezarri diren ardatz estrategikoak aipatzean: Hazkunde-eredu iraunkor eta arduratsu baten alde apustu egitea. (berriro ere hazkundera).
- 24. Orrialdean, eskualdean dauzkagun turismo eragileak aipatzerakoan, EXPLORE SAN SEBASTIAN REGION ekimena azaltzen da, eta bideratzen dituen ekintzak, besteak beste, lurraldetasun oreka lortzera zuzendutakoak direla dio. Hor izenaren eta asmoaren arteko kontraesana ikusten dugu, izenaren beraren kolonizatu kutsuaz aparte, lurraldetasun oreka nekez sustatu daiteke Gipuzkoa osoari izen hori emanda. Ez Zumaia eta ez Gipuzkoa, ez dira "San Sebastian Region".



Zumaia Udala

2018IAKU0004-007-003

- 26. eta 28. Orrialdeetan, eskaintza turistikoa deskribatzerakoan, behin eta berriz azaltzen da "produktu" hitza. (Agian saihestezina da, gure gaurko gizartean, baina kontziente izan gaituzen turismoak gure herria, bere osotasunean, produktu edo merkantzia, bihurtzeko arriskua dagoela). Eta azkenik, puntu negatiboak edo kritikagarriak bukatzeko
- Aldaketa klimatikoaren inguruko aipamena, eta horri aurre egiteko ekintzak, oso axalekoak dira, denok dugun kontzientzi txar kontsumista lasaitzera datozenak, baina ez dugu ahaztu behar turismoa dela, zuzenki, CO2 isurien %8aren erantzule, eta hau ez da broma

Hala ere,

Horiek horrela, eta azken ondorioak (137-140 orrialde tartean azaltzen direnak) aipatuz, gomendio hauek egiten dira planean:

- Biotopoaren araudia ezartzea
- Urola Itsasadarreko Plan Berezia berraktibatzea
- Bisitariak jasotzeko kapazitatea neurtzea (espazio publikoaren pribatizazioa eta ingurumena kezka iturri diren heinean mugak jartzeko).
- Alde Zaharra biziberritzea, bertako biztanleriaren beharrei erantzunez eta turismoaren beharrei ere erantzuteko aukera aztertuz.
- Euskarari lehentasunezko presentzia ematea.
- Ekintzaitasuna sustatzea, (Turismoak ekar litzakeen balizko onurak kanpora ez daitezkeen joan).
- Elkarbizitza bermatzea.
- Tokiko ekonomia sustatzea, lan baldintza duinak eta emakumeen ahalduak bultzatuz, eta 1. Sektorea indartuz (eskaintza turistikoa bertako produktuen kontsumoari lehentasuna eman).
- Geoparkearen izaera estrategikoa azpimarratzea.
- Eta guzti hau ahalbidetzeko, Gobernantza Kolektiboaren eredu berritzaileak asmatuz (agian ez dugu ezer asmatu beharrik Euskal Herrian daukagun Auzolan tradizioa ikusita). Horretarako tresnak Turismo Behatokia eta Turismo Mahaia lirateke, Lidergo Kolektibo Komunitarioa gauzatzeko (hau aurrekari polita izan daiteke herrian daukagun beste arazoei ere heltzeko).

Bi hitzetan, eta azken ondorioen lehen parrafoan ezin hobeto laburbiltzen den bezala:

LETORKEENARI AURREA HARTU ETA "SALDU BAINO LEHEN ZAINDU"

Zumaia EH Bilduren ustez, plan honek herritarrek turismoaren inguruan dituzten kezka nagusiei erantzuteko moduko mekanismoak ahalbidetzen ditu. Gure aldetik, konpromiso osoa hartzen dugu mekanismo horiek %100ean aktibatzeke ahalegin guztiak egingo ditugula, betiere hitza eta erabakia zumaiar guztion dela kontutan hartuz. Beraz, baiezkoa"

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 12 boto (6 EAJ-PNV, 5 EH BILDU, 1 ES-SV)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0



Zumaia Udala

2018IAKU0004-007-003

ERABAKIA: 1.- 2018-2021 urteetarako, Zumaia Udaleko Turismo Planari behin behineko onarpena ematea.

2.- Jendurrean erakutsiko da 30 lanegunez espedientea, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari ofizialean argitaratzen den biharamunetik hasita, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko. Aipatutako apean erreklamaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin behineko akordioa behin betikotzat hartua izango da, 7/1985 legeko 49 artikulua arabera.

6.- PROPOSAMENA.-

6.1.- EH BILDUK AURKEZTURIKOA: ZUMAIKO MUGIMENDU FEMINISTA

Urgentzia berresteko bozkatzeari ekin diote.

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: (12 boto (6 EAJ-PNV, 5 EH BILDU, 1 ES-SV)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 0

ERABAKIA: Gaia tratatzea erabakitzen da

ALKATEA: Gaia tratatzera pasako gara, EH Bilduk eman dio sarrera moziolari, Jonek eskatzen du hitza,

JONE MUGUERZA (EH BILDU):

“ Martxoaren 8an mundu mailan egindako greba feministaren egunean egindako mobilizazioak direla eta, Zumaia Mugimendu Feministako kide bati 2015/4 martxoaren 30eko Hiritar Segurtasunaren Babeserako Lege Organikoa oinarri hartuta jarritako isunari dagokionez,

Zumaia Udalak honakoa adierazi nahi du:

1.- Bat egiten dugu mugimendu feministaren helburu, aldarrikapen eta jardunarekin.



Zumaia Udala

2018IAKU0004-007-003

2.- Herritarren askatasunak mugatu eta herritar zein mugimenduen protestak kriminalizatzen dituen eta demokraziaren murrizketa suposatzen duen 2015/4 martxoaren 30eko Hiritar Segurtasunaren Babeserako Lege Organikoa legeren aurka kokatzen gara, eta 2016ko apirilaren udal adierazpenean egin bezala indargabetzea eskatzen dugu.

3.- Zentzu horretan:

* Isuna indargabetzeko dagozkion eskaera zein irizpideak egiteko konpromisoa hartzen dugu,

* Aurrerantzean, 2015/4 martxoaren 30eko Hiritar Segurtasunaren Babeserako Lege Organikoren aurka egonik, Lege hau ez aplikatzeko konpromisoa hartzen dugu, 2016an Zumaia Udal Plenoak zein Eusko Legebiltzarrak EH Bildu, EAJ eta PSE-ren babesarekin egin zuen moduan,

2016ko ekainaren 22an onartutako adierazpenean hala jasotzen zen, 3. Eusko legebiltzarraren gehiengoa lege honen aurka egonik lege hau ez aplikatzeko konpromisoa hartza “

ARRITXU MARAÑON (ES-SV): Sí, para señalar la posición de voto y explicar alguna cosa más al respecto.

En este sentido señalar que por supuesto desde el partido socialista como no puede ser de otra manera se está totalmente a favor del movimiento feminista de la defensa y los objetivos que persigue como no podía ser de otra manera y de otro modo y respecto al tema que nos trae hoy aquí en concreto señalar diferentes y varias cosas,

Señalar que efectivamente hay un acuerdo del Parlamento Vasco tal y como hemos podido comprobar por el cual la mayoría Parlamentaria y en concreto tres partidos como son EH Bildu, Partido Nacionalista Vasco y Partido Socialista señalan su posición en contra de la aplicación de la denominada Ley Mordaza siempre que atente a los derechos fundamentales de las personas y en este sentido mi voto y mi decisión pero señalar y ahondar lo siguiente respecto a lo sucedido en Zumaia.

Efectivamente fue con motivo de la celebración del día 8 de marzo y la sanción que llega y que recibe esta ciudadana va ligada a la aplicación de la ley mordaza, siguiendo un procedimiento administrativo común.

La ley mordaza modifica el criterio de la anterior ley de Seguridad Ciudadana quitando capacidad a los jueces no? para precisamente actuar respecto a este tipo de situaciones y en este sentido limitar el poder de defensa en este caso de la ciudadana que ha sido sancionada, la cual no tiene derecho al principio de contradicción básico para señalar por su parte cualquier objeto de defensa al respecto y en ese sentido como partido socialista y lo hemos venido diciendo anteriormente estamos absolutamente en contra de esto y de aplicaciones similares por parte de dicha ley.

Acabo ya diciendo también que una vez más como ya lo hicimos también en este pleno en otra ocasión volvemos a pedir la inmediata derogación de dicha Ley, nada más.

ALKATEA: Gu gure aldetik, dakizuen bezala gaur plenoa berandu hasi gara, gai honek nahiko.... mozio honek zalantzak sortu ditu alderdi politikoen artean, berorretan aurkeztu den bezala, pleno honetan, udalbatza honetan, legealdi honetan, Arritxuk esan bezala 2015/4 martxoaren 30eko Hiritar Segurtasunaren Babeserako Lege Organikoa Legearen aurka kokatzen gara hiru alderdi



Zumaia Udala

2018IAKU0004-007-003

politikoak derogatzeko eskatzen dugu eta bestetik, guk martxoak 8ko egun horretan esan ziren gertakari horien inguruan Lege bat aplikatzen da, Lege hau, hain zuzen lehenago esan dudan lege hau.

Lege hori derogatzeko eskatzen dugu, urratsen direlako herritarren hainbat eskubide, ez? baina baita ere gustatuko zitzaigun azpimarratzea lege horrek beste hainbat ahalmen ere jasotzen dituela lehenagotik lege batzuetan jasotzen zirenak.

Alderdi horretatik baita ere Lege berri honek kokatzen duena da, isuntzen zaion pertsona edo herritar horri nolabaiteko eskubideak urratsen zaizkiola ba... helegitea jartzerako orduan edo zailtasunak izaten ditu, ez?

Horren inguruan guk idatzi bat prestatu dugu eta idatzi hau irakurri aurretik, gaiari buruz ez dugu informazio askorik izan, gertakariena, baina bai aurreratu gure bozka izango dela abstentzioa mozio honen inguruan eta jarraian irakurriko dizuet, pixkat prestatu dugun idatzia mozio honen inguruan, ez?

" EAJ-PNVren udal talde honek argi utzi nahi du berdintasunaren alde egin duela eta egingo duela beti. Are gehiago, hori lortze aldera beti azaldu da berdintasunaren alde lan egiten duten elkarte, talde edo mugimenduen lagun gisa. Eta ildo horretan, noski, bat gatoz martxoaren 8an Zumaian egindako aldarrikapen eta ekintza ororekin.

Edonola ere, berdintasunaren edo beste edozein aldarrikapenen aldeko bidean ezin ditugu gauzak nahastu. Gutako bakoitzak ezin du nahi duena, nahi duenean edo nahi bezala egin, ondoren gainera, aldarrikapenak euren ekintzen justifikazio gisa erabiliaz. Orduan bai, tamalez, aldarrikapenen mezua eta helburua zeharo galtzen dira horiek lortzeko erabilitako jokabide edo moduegatik.

Kasu honetan, martxoaren 9ko ekintzak aurrera eramateko baimenak eskatuta zeuden, baina aurreikusitakoaz haratago, bestelako bideei heldu zitzairen eta kasu honetan, bide horiek Zumaia errepide nagusiaren itxiera eragin zuten, horrek, herriaren eta herritarren ohiko funtzionamenduan dakartzan ondorio guztiekin.

Eta hain zuzen aurreikusitako plangintzatik kanpo zegoen ekintza hori, errepideen oztopatze hori, alegia, da, kasu honetan, mozal legeak isundu duena eta ez martxoaren 8an berdintasunaren alde herrian egin ziren aldarrikapen edota ekintzak.

EAJ-PNVren udal talde hau mozal legearen aurka azaldu da beti eta ez du inondik inora jarrera zein iritziz aldatu, baina kasu honetan, mozal legerik ez balego ere, beste edozein lege isunduko luke ekintza hori, ezin baita, inolako abisu edota baimenik gabe, herriko errepide nagusia itxi.

Beraz, adierazpen askatasunaren eta Martxoak 8ko eskaeren alde gaudelako, mozal legearen aurka gaudelako, baina baimenik gabeko bide bozketaren aurka gaudelako, mozio honen aurrean abstenitu egingo gara."

Besterik gabe, ez dakit hitza nahi duen hartu norbaitek, bozkatzera pasa aurretik Bilduk? Edo hemen eserita dagoen herritarren batek hitza nahi duen hartu, zerbait nahi duen esan, Bai!

HERRITARRAK: Hasteko EAJ-ak esan duen abstentzioa, abstenitu egingo dela aipatu dituzuen kontuen inguruan bada nahiko gauza ohikoa esatea ez?

Bagaude honen alde? Edo aldarrikapen hauen alde? Baina ez modutan, eta nik kasu honetan aitzakia moduan ahal dut ulertu badelako azkenean ere bai Mozal Legeak orokorrean segurtasuna, garbitasuna, ordenari lotutako araudi eta argumentazioetan gertatzen den kontu bat erabiltzen dugula gertatu den ekintza konkretu bat edo moduak ez? gaitzesteko mugimendu bat ba... orain pixkat esan duzun bezala ez? aldarrikapen horiek erabiltzea ez dakit zer justifikatzeko edo horrelako kontuak eta posizio hori ez zait iruditzen oso egokia



Zumaia Udala

2018IAKU0004-007-003

esaten badugu berdintasunaren alde edo mugimendu feministari babesa ematen dion alderdi baten kasuan.

Bestalde, hori nahiko genuke aipatu ere bai legea jarraituta mozal legea esan duzu, mozal legea aplikatuko ez balitz beste bat aplikatuko zela, horren inguruan nahiko nuke esan Legeak berez daudela pentsatuta gatazkak konpontzeko, are gehiago zigorrak eta isunak, baina eta zigorren kasuan azken kasu bezala; eta Legeak daude gatazkak ebazpen laguntzeko ez gatazkak sortzeko eta kasu honetan iruditzen zait legearen aplikazio honek gatazka bat sortu duela zeren denok ikusi genuen bezala martxoak 8 horretan egin zena izan zen bost edo hamar minutuko bai! errepidean eseri ginen ehunka emakume egun horretan zegoelako emakume ahaldundu pilo bat kalean eta Zumaia obiamente gainera ez zen izan herri bakarra inondik inora.

Bildu ginen hor, Lege batek ahal du hori isundu baina hor berez ez dago gatazka bat, eta kasu honetan egiten dena da Lege bat erabili gatazka bat sortzeko.

Eta bestalde, bai nahiko genuen aipatu pixkat, bai egon da honen inguruan ez? Badakigu ertzaintzak tramitatu duela isun hau, baina horretan eta prentsurrekoan ere bai agertzen genuen bezala iruditzen zaigu udaltzaingoan papera kasu honetan ere bai badaukala bere partea azkenean ez? Dakigunez, udaltzaingoak ere bai egiten du momentu horretan txosten bat gertatukoaren inguruan eta hor aparte egin da seinalizazio bat pertsona baten inguruan irakurketa batzuek egiten, ez seinalizazio bat egiten eta nolabait momentu horretan gatazka sortu ez zuen egoera bati isun bat jartzeko bide ematen eta hori iruditzen zaigu ere bai salagarria dela.

Bestalde, ahal dela kontraesankorra izatea izan ere bai esatea mozal legean eta honek suposatzen duenaren kontra gaudela baina gero ez! kondukta hori bestela ere bai zigortuko litzakeela esatea, orduan nahiko nuke ere bai galdetu ia kasu horretan mozal legean oinarrituta edo ez isun bat egotea alde egongo zinatekeen, galdetuko nuen, ez dakit ahal duzuen erantzun eta ez dakit beste norbaitek zerbait nahi duen esan,...

ALKATEA: Gai horren inguruan kasu konkretu hori isundu beharko litzakeen edo ez ba... aste honetan udaltzainak Zumaia alderdi politiko guztiekin azalpenak eman ditu gai horren inguruan eta bueno... hemen ere ez daukagu inongo arazorik bilera horretan helarazi zigun informazioaren inguruan jakinarazi Zumaian eskaera bat ematen denean elkarretaratze bat edo manifestaldi bat egoten denean beti, beti txosten bat bidaltzen da ertzain etxera eta kasu horretan egin zen beti bezala.

Ertzainak ireki zuen ireki beharreko espedientea bere isunarekin eta Legeak eta ordenantzak martxan jartzen dira nolabait arautzeko ez? gure gizarte hau, ez?

Eta legeak eta ordenantza horiek bere apartatu ba... edukitzen du azken aldera edukitzen du ba... "el sancionador" esaten bezala ez?

Gaur pleno honetan bi ordenantza onartu dira, aho batez, eta bi ordenantza horiek bukaera aldera apartatu beraien santzionadorea daukate, ez?

Orduan, askotan igual aplikatzen zaizkigunean isunak, kotxeak gaizki aparkatzeagatik, haserretu egiten gara baina hor daude, gure egunerokotasunean eta gure jardun guztietan orduan alde batetik hori eta besterik ez,



HERRITARRA: Azkar saiatuko naiz esaten, Iruditzen zait hor desberdintasuna dagoela trafikoko isun baten inguruan argi dagoela, ez? o sea kalte bat sortu dela egun horretan...

Daude eskubide batzuek direnak oinarrikoak, protesta eskubideak, adierazpen askatasuna, ez? horiek ezin dituzu hain erraz santzionatu eta esan duzun bezala onartzen diren ordenantza eta arauak dira elkarbizitza bat bermatzeko ez? suposatzen da hori dela helburua eta lehenago esan dudana bezala ez gatazka sortzeko hau da, erabili behar ditugu baliagarriak baldin bazaizkigu elkarbizitza hori hobetzeko, ez okertzeko, horretan suposatzen dut denok ados gaudela.

Eta kasu honetan bai mozal legeak ez du elkarbizitza hori bermatzen momentu honetan oraindik onartu gabe dagoen garbitasunen kontu horrek ere ez du bermatzen, ez du herritarren iritzia kontuan hartzen eta gatazka bat sortzen du ez dagoen lekuan, orduan ni ere ados nago arauak elkarbizitza bat sortzeko eratzin direla ba... sor ditzagun horretarako eta aplikatu ditzagun horretarako.

Horixe,

OIER KORTA: Eskerrik asko,

Bozkatzera pasako gara, inork ezer esateko ez baldin badauka

Aldeko bozkek?: 6 boto

Abstentzioak?: 6 boto

ERABAKI ZATIA

Aldeko botoak: 6 boto (5 EH BILDU, 1 ES-SV)

Kontrako botoak: 0

Abstentzioak: 6 boto (6 EAJ-PNV)

ERABAKIA:. EH Bilduk aurkeztutako Zumaia Mugimendu Feministaren inguruko proposamena onartzen da,

7.- JON JOSEBA IRAOLA REZOLA jna, EAJ-PNV TALDEKO ZINEGOTZIAREN ERRENUNTZIA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.-

ALKATEA: Puntu honen inguruan, aurkeztu duenak iruditzen zait bere azalpenak emango beharko lituzkeela pleno areto honetan, dakizuen bezala bere egunean jakinarazi zigun udalbatza hau osatzen dugun zinegotzi guztioi bere kargua uzteko proposamena, Zergatik kendu den esplikazioa edo azalpenak eman beharko dira,



JON IRAOLAK (EAJ-PNV) Ez duela ezer esateko adierazi du.

ALKATEA: Gai zerrendan, etorri da pleno honetara zuk aurkeztutako dokumentu bat kargu uzte zenuela. Eta gaur goizean sartu duzu beste idatzi bat esanaz retraktatu egiten zarela zure zinegotzi akta entregatzearena eta hori informatu egin behar dugu, ze sartzen den eta zergatik kentzen den, horretan ari naiz ez?

Alderdi horretatik gaur egindako proposamen honekin informatu nahi diet udalbatza honetan gauden zinegotzi guztioi ba... Jon Iraola pasako litzakeela "concejal no adscrito" izaera izaten dena, atxikitako zinegotzia izatetik -atxiki gabeko- zinegotzia izatea eta egoera horrela geldituko litzateke; Horren inguruan, nik esan beharra daukat zinegotzi hau sigla politiko batzuekin edo alderdi politiko konkretu politiko batekin aurkeztu zela eta orain berak erabaki duela talde politiko horretatik irteteko proposamena egin du gaur goizean eta ez dakit, horren inguruan Jon Iraola jaunak hitza hartu nahi duen edo azalpenik nahi duen eman edo aurkeztu duen idatzi horretan mugatzen den bere gaurko ekarpena udalbatza honetan. Hemendik aurrera herria izango da epaituko duena hemendik aurrerako udalbatzarretan zinegotzi honek izango duen jarreraren jabe, ez?

Ba... besterik gabe, eskerrik asko eta bukatutzat ematen dugu gaurko plenoa,

Eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, arratsaldeko zazpiak eta erdiak direnean eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Idazkaria